

# DIRU-SARRERAK



Hasteko, gure proiektu hau ikastetxe batean aurkeztea ezinbestekoa da, hala ere, helburu hobeak lortzeko, diru-sarrera handiago bat behar dugu dena burutu ahal dezagun.

Helburu dugu ikasleei kalitatezko ikasketa materialak eskaintzea, hala, gaietan adituak izan daitezkeenak, sukaldaritzarako elkagatiak eta bestelakoak barne. Horregatik, ordainketa bakarreko diru-sarrerak eskatu nahi ditugu, komunitate proiektuko ikasle bakoitzeko ordu batentzak 200€-koa.

Aurreikusi dugu, gure lana efikaza izateko hainbat material behar ditugula. Esate baterako, sukaldaritzarako txoko bat, elikagaiak eta tresna egokiak. Baliabide hauekin, ikasleen ezagutza praktikoa bermatzea ahalbidetu dezakegu. Azken finean, nahiz eta atal teorikoa jaso, praktikoa oso beharrezkoa dela iruditzen zaigu.

Gainera, segurtasuna ezinbestekoa da, batezere, sukaldaritza jarduera edota beste edozein momentutan gertatu daitezkeen istripuen aurrean prest egoteko. Segurtasun baliabide hauek gabe ezinezkoa litzateke proiektua aurrera eramatea, arriskutsua izan daiteke.

Honen haritik, diru-sarrera handiagoa bultzatzeak, gure proiektua haztea eta garatzea ahalbidetzeaz gain, ikasle zein irakasleen segurtasuna ziurtatuko luke. Horregatik, gure proposamena Jaurlaritzan aurkeztu nahi dugu, gobernuak eskaintza honetan lagundu gaitzan.

Honekin guztiarekin, proiektu honen bidez gizarte eta hezkuntza sistemaren arteko harreman positiboa lortu dezakegu, diru-sarreraren laguntzarekin.